

## ARRUE JAUNARENA:

Agintari agurgarriak, jaun-andreak :

Ezta noski gauza ona izango, berba egiten asterakoan buruan zer-esanik ez edukitzea. Baña ez dakit ez ote dan ere okerragoa gaur neri une ontan gertatzen zaidana. Alegia, buruan, eta buruan ezezik biotzean ere bai, gaiñezka zer-esan geiegi edukitzea.

Izan ere, euskaltzale batek, ni bezain apala izan arren, Azkue zanaren lan arrigarriak ezezik beraren izen utsak sortuerazten dizkan gogorazio ta sentikizun guziak, zelan usttu ta irauli lezazke itzalditxo batean?

Dana dala, izan bitez nere lenengo itzak, nere lenengo berbak, Euskaltzaindiaren esker-on sakonena Bizkaiako euskaltzale guziori erakusteko. Esan baigenezake losentxa ta gaintxuriketarik gabe, Euskaltzaindiak Azkue'ren gorazarre ontarako egin zuan deiari, berak uste zuan baño are obeto erantzun zaiola. Ta ez Bizkaian bakarrik, baita Euskalerra osoan ere. Ta orobat Euskalerritik kanpoko gizon aundi ta jakintsu batzuen aldetik ere.

Baña, batez ere, txit pozgarri izan da Euskaltzaindiarentzat, beraren Buru ogeitamabi urtean izandu zanaren omenaldi ontan, euskaltzale guziak, erabat, eskuartu dutela, ekustea. Ta, egia esan, ez Euskalerrian bizi diranak bakarrik, baita noski, batzuek, geienak, irabazpidearen billa ta beste batzuek berriz Jaungoikoa'ren itza zabaltzearren, Euskalerritikan urten eta Euskalerritikan urruti sakabanatuta bizi diran anaiak ere.

Ta besterik gabe, eman dezaiegun Azkue'ren lanegiñei begiralditxo bat. Begiralditxo labur eta arin-arin bat. Gaur zortzi toki ontan bertan Oleaga jaunak ikutu baizuan, eta egoki gañera, gai au bera.

Azkue'ren lanegiñak bost-bat sailletan berezi litezke.

*Lenengo sailla*: euskal-kanta zarren bildumak. Sail ontan Azkue'ren lanegiñ nagusiena, *La música popular vasca* landara, *Cancionero popular vasco* degu. Norbaitek esan du, ta ondo esan ere, lan au besterik antolatu ezpazuan ere, Azkue'k irabaziko zuala noski betiko izena.

*Bigarren sailla*: berak beraren burutik sortutako abesti-lanak eta langaiak. Sail ontan, abestitxo zoragarri batzuek izan ezik, *Urlo* ta *Ortzuri* operak, eta *Eguzkia nora*, *Sasi-eskola*, *Pasa de chimbos* eta baitipat *Vizcaytik-Bizkaira* zartzuelak dira iñolaz ere ezagunenak. Sail ontan ere, goiko malletan ibilli zan Azkue aundia.

*Iruugarren sailla*: Euskalerriko ipui ta gertakizun, oitura ta siniskeri, atsotitz eta esakera, ume-kantatxo ta olerki errikoibildumak. Esate baterako, idatzi al-du iñork sekulan gure errian Azkue'ren *Euskalerraren Yakintza* izeneko lau liburuekin neurtu litekenik? Azkue'k *Euskalerraren Yakintza* lanegiñ au bere amari eskefi zion.

Lenengo eskeintza-lerroak onela diote: "Lankide aundiena izan dodan Mari Karmen Aberasturi ta Uribarri, neure Ama maiteari". Ta jarraitzen dute: "Bai lau liburu onen orrialdeetan ta bai Iztegiarenetan bi mila bidar gitxienez, gai bata ta bestearen ondoan, iru izkiratxo onek irakurri dagikez: B-mu. Bizkaya-Mundaka darakuse. Zortzi-amar gai ez, beste mila ta bederatzireun ta larogei ta amarrak, ama, berorren ezpanetatik neure belarrietara yatsiak dira. Beste lankideai eskerrak itzez eta biotzez len emon neutsezan. orain biotzez eta idaztortzez erakutsi bear dautsedaz. Nire lankide guztien erreginari zor dautsadazan eskerrak onetaraxe izan ezik —bere izena neure lan onen bekokian ezarrita baino bestela—, ezoki ezin erakutsi dagikedaz".

Berba gorogorriak benetan, iaunak, euskeraz geren ameen ezpanetatik ikasi genduan guzientzat, baña aldi berean, berba lotsagizunak, euskeraz jakin arren euskeraz semeei erakusten ez dioten Euskalerriko gaurko ama utzi ta arduragabe batzuentzat!...

*Lauugarren sailla*: here buruz sortutako literatura-lanak: gertitudiak, antzerkiak, itzaldia, olerkiak eta erliio ta beste gai-mota guzietako ezin zenbatu ala lanxo. Sail ontan badu Azkue'k ginuzkoarrok txit begiko degun lan bat: ginuzkera osotuan idatzitako *Ardi Galdua* deritzaion gertirudia. Gipuzkoarrok ez ditugu egundaño aztuko, Azkue'k novela orren itzaurrean ezarri zituan itz batzuek: aleoia, bi sortferri, bi asaberri bear izan hazituan, bigarrena Gipuzkoako erri txiki bat. Leaburu, izango zala noski.

*Bostgarren sailla*: euskerari buruz, eta euskalari ta gramatikalari bezala, egin zituan lanak. Sail ontan Azkue bai ibilli

zala goien-goieneko malletan! Ba-alda, adibidez, beraren *Euskal-izkindea*, *Método práctico para aprender el vascuence*, *Prontuario de la Lengua Vasca* izeneko pitxia, *Gipuzkera osotua*, *Morfología Vasca* ta berariaz *Diccionario Vasco-Español-Francés* iztegia eza-gutzen ez dituan euskaltzalerik?

Esan genezake, oker aundirik gabe, Azkue'ren Iztegia, iñoiz euskerari buruz egin dan lanik bikain eta garaiena dala, ta gaurko euskal-idazle ta euskal-iztun aundi ta txiki guzior *makuhua*, gañera.

“Berrogeita amar urte beetik euskeraz idatzi dugunok —dio Orixe'k— Azkue'ren Iztegia ikasi dugu, ta Iztegi ortara yotzen dugu argitasun zur”.

Sinistea ere baditu gero here egitekoak, gaur zortzi Oleaga jaunak esaten zigun bezala, zelan gizon batek bakarrik lan auek guziak egin zezazkean, eta lan auek guziak egin eta zelan gelditzen zitzaion alaere beta ta astia, *Euskaltzaindia* ta *Euskalzale*, *Ibaizabal* eta *Euskera* aldizkariak zuzentzeko, gañera...

Etzuan Azkue'k Evangelioko talentu-alegi ezaguneko morroi alper-nagi arek bezala jokatu. Ez. Iñolaz ere, Jaungoikoa'k talentu asko eman zizkan Azkue'ri, haña Jaungoikoa'k Beregan deitu zionean, lasai asko emango zuan noski kontua talentu aien obariaz. Iñork ez bezala erabili baizituan Azkue'k Jaungoikoa'k emandako doai ugariak, eta gañera, ta ain zuzen ere, erlijio ta gure izkuntza xar-maitearen aldeko lanetan, guziak.

Jakiña, ezta naikoa, baldin Azkue bear bezala ta merezi duan lez, goratu nai badegu, jaialdi batzuek ospatzea. Ez gaitzen erdi-bidean gelditu. Jaialdi atsegin auek ia alperrikakoak izango lirake, beraren Iztegi ta beste lanegiñak osatzen eta zabaltzen ez-paditugu. Ta ortarako, jaunak, badakizute guziok zer... *lanabes* bear ditugun. Lenengoa, arazo guzietan bezala, dirua. Zorioneko dirua!

Entzun bestela, ipuitxo bat. Edota obeto esateko, gertakizun bat. Azkue'k berak ezagutu izan bazuan, ziur asko txit gogoko izango zitzaion gertakizun bat, jazoera bat.

Orain urte batzuek dirala, Gipuzkoako Altzo deritzaion erri txiki batean, ezergatik ere ikaratzen etzan, ezergatik ere beldurtzen etzan Praixku izeneko mutilzar berekoi, zikotz eta pijo bat bizi zan.

Igande-arrats batean, erriko unore oneko mutil gazte batzuek, arandegian naiko zurruta egin eta erdi-berdoztuta gero, estutasun gogor bat gure gizonari emateko asmoa artu zuten.

Bereala sortu zituzten kate zar batzuek, izara bat edo beste ere bai, ta bere aiekin Praixku'ren etxe-aldera abiatu ziran; gaur orratik izutu bear digu Praixku, alazankoa, esanaz.

Praixku'ren etxe-atadira eldu ziranean, izarak burutik beera artu ta kate zarrekin berealdiko iskanbilla atereaz, asi ziran oiuka ta garraxika guziak, batek atea jotzen zuan bitartean.

Alako batean jaiki zan Praixku oetik eta, ateko leiotilla idirik, galdegin zuan, itandu eban:

—Nortzuk zerate?

—Purgatorioko animak —erantzun zioten, abots meagaz eta erdi-negarrez bezala, gazteak.

Praixku'k.—Purgatorioko animak? Eta zer nai dezute?

Besteak.—Meza bat ateratzea.

Praixku'k.—Ta dirurik ba-aldezute?

Besteak.—(Zer esan etzekiela...) Ez, dirurik ez...

Ta Praixku'k, lasai-lasai leiotilla itxiaz, amaitu zuan solasa esanaz:

—Dirurik ezpadezute, alper-alperrik zabiltzate; gure erriko Erretoreak, gure erriko Abadeak, dirurik gabe ez dik mezarik emoten-da.

Baña, diruarekin bakarrik ez degu noski bear degun guzia lortuko. Naita-naiez, ortarako, beste egikizun estu ta larri batzuek ere bete beariko ditugu.

Orain egun batzuek dirala, ta Azkue'ren omenaldi au gertutzen ari giñala, nekatuta-edo erdi lotan gelditu nintzan, eta losusta artan, lo-suma artan, amets bat egin nuen.

Ama Euskera zarrak, beraren alde ainbeste lan egin zuan semea nolabait ere eskertu nairik-edo, laztan bero-bero bat eman zion bekokian etzinda zegoan Azkue'ren korputz-illari. Ta Azkue'ren korputz-illa, laztan arren berotasunaren beroz, bere illobian berpiztu ta jaiki zan, eta geldiro dei maitekor baña garratz bat egin zuan. Zer zion dei arek? Euskaldunok, euskeraren aldeko langintzarako, geren arteko berezitasun guziak alde batera osoro ta bein-betiko utzi ta, danok elkartutzeko, danok batutzeko; bestela ez duala euskerak patu onik izango-ta.

Jaunak: ametsak, ametsak dira. Baña Azkue'ren dei ura, nik beintzat, egiazkotzat bezala jotzen det. Ta baldin euskeraren alde ziñez eta benaz zertxobait egin nai badegu, Azkue'ren deia zintzo ta deduz bete bearrean arkitzen gera, egiztatuaz gañera orrela, gure euskaltzaletasuna, gure euskeraganako maitetasuna ez daramakigula miñean bakarrik, ez daramakigula ezpanetan bakarrik, ez daramakigula agoan bakarrik, baizikan eta bear dan

lez, daramakigula baitipat biotzean, biotzaren barru-barruan, biotzaren erdi-erdian; berba batez, biotzaren biotzean.

Ta geiago gabe, amaitzera noa, jaunak.

Gipuzkoarra naiz. Gipuzkoatik nator. Eta merezi gabe baña, esan nezake gaur, une ontan, Gipuzkoako euskaltzale guzien ordezkari apal bat bezala naizela.

Beraz, amaitzeko, euskaltzale kiputz guzien izenean, eta Azkue'ren illobitik datorkigun deiari erantzunaz, biotz-biotzez eta begiramen osoaz auspezturik, Azkue aundiaren Bizkaiko illobi gurgarri orren oiñetan ipintzen del nik, mendi-larrosez egindako koroe apal bat lez, Gipuzkoako olerkari zar baten bertso-sorta au:

...Danak nai dute  
 Lege zarrak dakarrena,  
 Eta ez dute ezagututzen  
 Izkuntza dala aurrena.  
 Miru gaiztoak menderatutzen  
 Duten bezela uxua,  
 Ez dezagula iltzera utzi  
 Gure euskera gaxua.

*ANTONIO ARRUE*